## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2265**

**185/2011 ERABAKIA, apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, "Valle Bajo del Inglares" ureztatzaileen elkartearekin hitzarmena izenpetzea onartzen da, Arabako Foru Aldundian nahitaezko dirubilketaz arduratzen den erakundearen bidez, elkarte horren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean biltzeko.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 15. artikuluaren 1. idatz zatiak hauxe xedatzen du:

"Administrazioko organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera materialak, teknikoak eta zerbitzuzkoak administrazio bereko edo beste bateko organoen edo erakundeen eskuetan jar daitezke, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago."

Uraren Legearen testu bateratua onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 82. artikuluaren 1. idatz zatian xedatutakoari jarraituz:

"Erabiltzaile elkarteak zuzenbide publikoko erakundeak dira, eta beren estatutuak eta ordenantzak betearazteaz eta aprobetxamendua zuzen gauzatzeaz arduratzen den arroko erakundeari atxikita daude. Lege honetan, haren araudietan eta beren estatutu eta ordenantzetan ezarritako prozedurekin bat etorriz jardungo dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz."

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak eta "Valle Bajo del Inglares" ureztatzaileen elkarteak lankidetza hitzarmena sinatu nahi dute, Arabako Foru Aldundian nahitaezko dirubilketaz arduratzen den erakundearen bidez, elkarte horren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean biltzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT

Lehenengoa. "Valle Bajo del Inglares" ureztatzaileen elkartearekin hitzarmena izenpetzea, Arabako Foru Aldundian nahitaezko dirubilketaz arduratzen den erakundearen bidez, elkarte horren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean biltzeko. Hitzarmena erabaki honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematea aurreko puntuan aipatzen den hitzarmena eta hitzarmen hori betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Gasteiz, 2011ko apirilaren 5a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.– Fintantza Eta Aurrekontu Zuzendaria, EDUARDO BRINGAS GONZÁLEZ.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**2265**

**ACUERDO 185/2011, del Consejo de Diputados de 5 de abril, que aprueba la suscripción de un Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de esta Diputación Foral, de los créditos y derechos correspondientes a la Comunidad de Regantes "Valle Bajo del Inglares".**

La Ley 30/1992 del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el apartado 1 del artículo 15, dispone que:

"La realización de actividades de carácter material, técnico o de servicios de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de la misma o de distinta Administración, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño".

En virtud de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 82 del Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas:

"Las Comunidades de usuarios tienen el carácter de corporaciones de derecho público, adscritas al Organismo de Cuenca, que velará por el cumplimiento de sus estatutos u ordenanzas y por el buen orden del aprovechamiento. Actuarán conforme a los procedimientos establecidos en la presente Ley, en sus reglamentos y en sus estatutos y ordenanzas, de acuerdo con lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común."

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y la Comunidad de Regantes "Valle Bajo del Inglares", desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos de la citada Comunidad de Regantes.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar la suscripción con la Comunidad de Regantes "Valle Bajo del Inglares", del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes a la citada Comunidad de Regantes, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo. Autorizar al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, 5 de abril de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.– Director de Finanzas y Presupuestos, EDUARDO BRINGAS GONZÁLEZ.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**2137**

**152/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Urizaharreko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala; hain zuzen ere, hiri lurzoruko 1 poligonoko 917 eta 918 lurzatiei eta 924 lurzatiaren zati bati buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2010eko maiatzaren 25ean, Urizaharreko Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen indarrean dauden planea-

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**2137**

**ORDEN FORAL 152/2011, de 28 de marzo de Aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Peñacerrada, referida a las parcelas del Polígono 1 del suelo urbano, números 917, 918 y parte de la 924.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 25 de mayo de 2010, el Ayuntamiento de Peñacerrada acordó aprobar inicialmente la modificación de refe-

menduko arau subsidiarioen aipatutako aldaketari; baita espediente hori hilabete jendaurrean jartzea ere, eta horren berri eman zen iragarki bana argitaratuta 2010eko ekainaren 18ko ALHAOn (67 zk.), 2010eko ekainaren 15eko El Correo egunkarian, 2010eko ekainaren 17ko Diario de Noticias de Álava egunkarian eta udaleko iragarki taulan.

Bigarrena.- Hasierako onarpen horren jakinarazpena jaso zuten udalerriko administrazio batzarretako kontzejuek, arloko eskumenak dituzten herri administrazioek eta Foru Ogasun Saileko Ondare Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundia 918 lurzatiaren jabe zelako, baita Estatuaren Ondareak ere, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Arabako Ordezkaritzaren bidez, abuztuaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren 711/2000 Erabakiaren bidez, desafektatu egin zelako jabari publikotik 1 poligonoko 918 lurzatian eraikitakoa eta bere jabeari itzuli zitzaiolako, hau da, Estatuko Administrazio Orokorrari.

Hirugarrena.- Jendaurreko informazio aldian, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2010eko urriaren 7ko bilkuran.

Laugarrena.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak horri buruzko txostena eman zuen, abenduaren 22ko 8/2010 bilkuran.

Bosgarrena.- Urizaharreko Udalak Arabako Foru Aldundiari espedientea bidali zion (sarrera eguna: 2011ko urtarrilaren 27a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Seigarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluko 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak martxoaren 22ko 2/2011 bilkuran espediente honen gaineko txostena egin zuen.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Urizaharreko Udalak sustatu eta izapidetutako aldaketaren xedea da 917 eta 918 zenbakiko lurzatiak eta 924 zenbakiko lurzatiaren zati bat berriro kalifikatzea. Gaur egun, SUR-3 ordenantzak arautzen ditu lurzati horiek, eta asmoa da SU7 ordenantza berriak arautu ditzala; hortaz, egun bizitegi erabilera bereizgarria eta 2,5 m$^2$t/m$^2$s-ko gehieneko eraikigarritasuna duen SU-3 ordenantzatik beste ordenantza berri batera aldatuko da. Azken hori bi aldetan egongo da bereizita: A aldea, komunitate ekipamenduko erabilera eta 2 m$^2$t/m$^2$s-ko gehieneko eraikigarritasuna izango dituena, eta B aldea, komunikabide eta garraio erabilera eta 0,25 m$^2$c/m$^2$s-ko gehieneko eraikigarritasuna izango dituena.

Bigarrena.- Espedienteak proposatu du aldaketa egitea, aurri egoeran dagoen eraikin desafektatu baten ordez beste jarduera hau eginda, eraiki hori berariazko antolamendutik kanpo geratuko litzatekeela: informazio gune bat sustatzea 924 lurzatiko pabilioian, ekipamendu sistema orokor gisa, baita 917 eta 918 lurzatietan ibilgailuen aparkaleku bat ere, komunikabide sistema orokor gisa, ibilgailuak ahal den neurrian herrigune historikora sar ez daitezen, batez ere, elurte garaian ezinezkoa izaten baita.

Hirugarrena.- Aipatutako helburuak, hau da, hiribilduko informazio gunea eta aldirietako aparkalekua egiteak, bisitariak hiri lurzoruko historian eta ohituretan barneratzen lagunduko du, ibilgailuen zirkulazioak inolako oztoporik egin gabe.

Aldaketa puntuala zuritzeko aipatu behar da ez dagoela kalifikazio hori eta ezaugarri egokiak dituen beste alderik herrigunetik eta A-2124 errepidetik gertu; hortaz, kuartel-etxea dagoen aldea berriro kalifikatzeko proposatu da, ez duelako bizilagunik eta kontserbazio egoera txarrean dagoelako, eta, ondorioz, herriko alde horren irudia okerragotzen ari baita.

Laugarrena.- Gorago adierazitakoari formazko zehaztasun hauek gehitu behar zaizkio:

Espedientean ageri da 7. ordenantzaren 159.4 artikuluan “Planeamendua gauzatzeko araubidea” deritzon atala gehitu dela, eta aurreikusitako inbertsio kostuaren balioespen zehatza jasota dago bertan. Ordenantzak arau emaileak direla kontuan hartuta, ez da

rencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento vigentes, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA 67 de 18 de junio de 2010, en el periódico El Correo de 15 de junio de 2010, en el Diario de Noticias de Álava, de 17 de junio de 2010 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- De dicha aprobación inicial, fueron notificados los Concejos de las Juntas Administrativas del municipio, las administraciones públicas con competencias sectoriales y el Departamento Foral de Hacienda, Servicio de Patrimonio, al ser la Diputación Foral de Álava propietaria de la parcela 918, así como al Patrimonio del Estado, Delegación del Ministerio de Economía y Hacienda en Álava, al haber sido desafectado el contenido edificado en la parcela 918 del polígono 1, del dominio público y ofrecido en reversión a su propietario, la Administración General del Estado, mediante Acuerdo 711/2000, de 2 agosto, del Consejo de Diputados.

Tercero.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 7 de octubre de 2010 a aprobar provisionalmente el expediente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 8/2010, de fecha 22 de diciembre.

Quinto.- El Ayuntamiento de Peñacerrada remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo su entrada el día 27 de enero de 2011.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2011, de 22 de marzo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida y tramitada por el Ayuntamiento de Peñacerrada, tiene por objeto la recalificación de las parcelas números 917, 918 y parte de la 924, actualmente regidas por la ordenanza SUR-3, para ser regidas por una nueva ordenanza S.U.7, de manera que de la actual SU-3 de uso característico residencial con una edificabilidad máxima de 2,5 m$^2$t/m$^2$s, se pasa a la nueva ordenanza la cual se divide en 2 áreas: la Zona A de Uso de Equipamiento Comunitario y una edificabilidad máxima de 2 m$^2$t/m$^2$s y la Zona B destinada a Uso de Comunicaciones y Transportes; con una edificabilidad máxima de 0,25 m$^2$c/m$^2$s.

Segundo.- El expediente propone la modificación sustituyendo un edificio desafectado y en ruinas dejándolo fuera de ordenación expresa, por una actuación destinada a promover un Centro de Información en el pabellón de la parcela 924, como Sistema General de Equipamiento, y, un espacio para aparcamiento de vehículos en las 917 y 918, que evite el acceso rodado, en lo posible, al interior del casco histórico, como Sistema General de Comunicaciones, imposible sobre todo en tiempos de nevadas.

Tercero.- Los fines citados, Centro de Información de la Villa y la ubicación de un aparcamiento disuasorio, contribuirá a introducir a los visitantes en la historia y costumbres del suelo urbano, sin interferencia de tráfico rodado.

La modificación puntual se justifica por el hecho de no existir ninguna zona con dicha calificación y entidad suficiente en las proximidades del centro histórico y de la carretera A-2124, por lo cual se propone la recalificación de la zona donde se levanta el edificio de la casa-cuartel, que está deshabitado y en malas condiciones de conservación, contribuyendo al deterioro de la imagen urbana de esta parte del pueblo.

Cuarto.- A la anterior consideración hay que sumar las siguientes precisiones de orden formal:

El expediente introduce en el art. 159.4 de la Ordenanza 7, un denominado “Régimen de Ejecución del Planeamiento”, que incluye una valoración concreta del coste de inversión previsto. Teniendo en cuenta el carácter normativo de las ordenanzas, no resulta

koherentea zenbatekoaren atala gehitzea ordenantzetan, gainera aurreikuspena baino ez da eta aldaketak izan ditzake. Era berean, egokiagoa litzateke Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak 62 artikuluan adierazitako "ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa" delakoan agertzea; eta hori aurkeztutako agiriari erantsi beharko litzaioke.

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lurzoruen erabilerak aldaraziko dituzten hirigintza antolamenduaren aldaketetan, kasu honetan bezala, erregistroaren arabera, hasi aurreko 5 urteetan finken gaineko eskubide errealen titular eta jabe izan diren guztien nortasuna jasota egon behar da espedientean.

Alderdi bi horiek moldatu egin beharko dira aurkeztutako espedientean.

Bosgarrena.- Herrilan eta Garraio Saileko Errepide Zuzendaritzak adierazi du jarduerak honakoa errespetatu behar duela: "A-2124 errepidea Urizaharreko zeharbidean (Araba) egokitzeko proiektua". Era berean, azaldu du ibilgailuak eremuaren hegoaldean dagoen barne bidetik bertara heltzeko bidea jaso behar duela eremua garatuko duen tresnak.

Seigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, abenduaren 22ko 8/2010 bilkuran, ez du inolako trabarik jarri, bere txostenean lotesleak diren alderdietan, espedienteak aurrera egin dezan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Urizaharreko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualerako espedientea, hiri lurzoruko 1 poligonoko 917 eta 918 lurzatiei eta 924 lurzatiaren zati bati buruzkoa, ondoko baldintza hauekin:

1.- Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak 62 artikuluan adierazitakoa jasoko lukeen "ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa" gehitzea egungo agirian, eranskin gisa.

2.- Hasi aurreko 5 urteetan finken gaineko eskubide errealen titular eta jabe izan diren guztien nortasuna gehitzea agirian, hirigintza antolamenduak lurzoruen erabilerak aldatzen dituen kasuetarako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70. artikuluak xedatu bezala.

3.- Eremua 2005eko maiatzaren 31n onartutako "A-2124 errepidea Urizaharreko zeharbidean (Araba) egokitzeko proiektua" delakora egokitu behar denez, horretarako egin beharreko zehaztasunak gehitzea agirian.

4.- Eremuaren ondorengo garapena zehaztuko duen proiektuak ibilgailuak eremuaren hegoaldean dagoen barne bidetik bertara heltzeko bidea nahitaez jaso beharko duela gehitzea agirian.

Bigarrena.- Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio (testu bateratua izango dela), berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko martxoaren 28a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

coherente introducir en las mismas una consideración de importe económico previsto y sujeto a variaciones, que tiene un lógico acomodo en un "estudio de viabilidad económico-financiero", definido en el art. 62 de la Ley de Suelo 2/2006 y que debe anexarse al documento escrito presentado.

Por otra parte, y según dispone el art. 70 de la Ley 7/85 de Bases de Régimen Local, en alteraciones de la ordenación urbanística que modifiquen los usos del suelo, como en este caso, se hará constar en el expediente la identidad de todos propietarios y titulares de derechos reales sobre las fincas afectadas durante los 5 años previos a su iniciación, según registro.

Ambas cuestiones habrán de ser resultas en el expediente presentado.

Quinto.- La Dirección de Carreteras del Departamento de Obras Públicas y Transportes indica que la actuación ha de respetar el "Proyecto de acondicionamiento de la carretera A-2124 en la travesía de Peñacerrada (Álava). Asimismo, que el instrumento de desarrollo del ámbito, ha de contemplar el acceso rodado al mismo desde el vial interior situado al Sur del ámbito.

Sexto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 8/2010 de 22 de diciembre no ha puesto objeción al expediente en los aspectos en que su informe es vinculante.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Peñacerrada, referente a las parcelas del polígono 1 del suelo urbano, números 917, 918 y parte de la 924, con las siguientes condiciones:

1.- Incluir en el documento un "Estudio de viabilidad económico-financiero" con el contenido definido en el artículo 62 de la Ley del Suelo 2/2006 y que debe anexarse al documento escrito actual.

2.- Incluir en el documento la identidad de todos los propietarios y titulares de derechos reales sobre las fincas afectadas, durante los 5 años previos a su iniciación, tal y como dispone el artículo 70 de la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local, cuando la ordenación urbanística modifica los usos del suelo.

3.- Incluir en el documento la definición del ámbito en relación con su necesaria adaptación al Proyecto de Acondicionamiento de la carretera A-2124 en la travesía de Peñacerrada aprobado el 31 de mayo de 2005.

4.- Incluir en el documento la obligatoriedad de que el Proyecto que defina el desarrollo posterior del ámbito habrá de contemplar el acceso rodado al mismo desde el vial situado al Sur de dicho ámbito.

Segundo.- La condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, constituyendo un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 28 de marzo de 2011.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.